

## 1. UDALEN ESKUMENAK

*“2017ko proposamenean oinarrizko legediak udalei aitortzen dizkien eskumenak oso-osorik errespetatzen dira”.*

---

### **2017ko proposamena**

Proposamen honetan oinarrizko legediak udalei aitortzen dizkien eskumenak oso-osorik errespetatzen dira.

Udalek erabakitzen ahal dute eskumenak uzten dizkieten, edo ez, kontzejuei edo/eta eskualdeei, oinarrizko legediak ezartzen dituen mugen barrenean.

Gerta liteke eskualdeak hasieran ematen duen zerbitzu bat gero ez ematea, udalek eskatzen ez dutelako.

### **2012ko Foru Lege Proiektua**

Proiektu honek bai eragiten zion oinarrizko legediak ezartzen duen udalen eskumen eremuari.

Foru Lege proiektuak ezartzen zuen ezen *“Interes Orokorreko Mankomunitateek (... ) edukiko dute helburu itzulezin bezala, ematea, gutxienez, Foru Lege hau onesten denean beren eremuetan mankomunitateak dauden udal-eskumeneko zerbitzuak”.*

Estatuko Administrazioak lege mailako oztopoak jarri zituen Nafarroako udalei, beren eskumeneko eremuan, ezartzen zitzaien delegatzeko eta hitzarmenak egiteko aparteko murrizketa horrengatik.